




Afliazioak marka berria ezarri du EAEn

Gizarte Segurantzako afliazioa Urte bakoitzeko urria. Milakoak




Iturria: Gizarte Segurantza.

Urrian, Gizarte Segurantzako afliazioa %1,2 gehitu zen EAEn, aurreko urteko hil beraren aldean. Horrela, serie historikoan marka berria ezarri da, 1.020.000 afliazio baino gehiago lortu ondoren. Aurreko aldietan bezala, emakumeek (%1,3) gehiago parte hartu zuten hazkunde horretan gizonek (%1,1) baino.

EAEko ekonomiaren termometroa 95,1ean dago

EAEko ekonomiaren termometroa Indizea



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Saila.


Azaroan, EAEko ekonomiaren termometroa 95,1 puntutan kokatu zen, aurreko balioak baino pixka bat beherago. Hala ere, hazkunde sendoko eremutik gertu dago oraindik, inbertsioak bilakaera hobea izan duelako eta inflazioa moteldu egin denez, kontsumoak tasa egonkortu duelako. Era berean, enplegua sortzen jarraitzen da.



EAEko industriaren jarduera %0,4 murriztu zen

Industria produkzioaren indizea (IPI)

Urte bakoitzeko iraila. Indizea




Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratutako datuen arabera, **Euskadiko industriaren produkzioa %0,4 murriztu zen irailean, aurreko urteko hil berarekin alderatuta**. Jaitsiera horretan indizeko talde guztiek parte hartu zuten, ekipamendurako ondasunek izan ezik, %4,2ko igoera izan baitzuten.

Obren lizitazioak gorakada nabarmena izan du

Euskadiko herri lanen lizitazioak

Urte bakoitzeko urtarriletik irailera. Milioiak



Iturria: Seopan.

Seopanek berriki argitaratutako datuen arabera, **EAEko obra publikoen lizitazioen diru kopurua %14,5 igo zen irailera arte, aurreko urteko aldi beraren aldean**. Zehazki, 1.500 milioi euro inguru izan dira, 2010etik izan den erregistrorik gorena. Bilakaera horren arrazoia erai-kuntzen portaera esanguratsua izan zen (%72,4).